



GAIA: Aldi baterako enplegua egonkortu eta finkatzeko ezohiko prozesuari dagokion lanpostuak merezimendu-lehiaketa bidez betetzeko deialdia.

Izendapen proposamena

2024ko apirilaren 25ean LAGA Mankomunitateko web orrialdean Mankomunitateko lanpostu hutsak merezimendu lehiaketa bidez betetzeko prozesuaren baitan, hutsik geratutako lanpostuak betetzearen inguruko akta argitaratu zen.

3.postuaren kargu hartzea eginda, izangaien zerrendaren hurrenkera jarraituz, eskabidea aurkezteko garaian emandako helbide elektronikoaren bitartez jarri gara harremanetan, ondorengo erantzunak jasoz:

- Miren Huarte Jaka-k 2024ko maiatzaren 24an 11.postua hartzeari uko egin zion.
- Maria Razkin Galan-ek 2024ko maiatzaren 29an 11.postua hartzeari uko egin zion.
- Itziar Doray Oscoz-ek 2024ko ekainaren 3an 11.postua hartzeari uko egin zion.
- Maitane Arruabarrena Ochotorena-k 2024ko ekainaren 5ean 11.postua hartzeari uko egin zion.

Hodei Lizarraga Zufiaurre-k, aldiz, ekainaren 7an, 11.lanpostua hautatu eta beharrezko agiriak aurkezteko epea ireki zen. Epe horretan aurkeztutako dokumentazioa kontuan hartuz, epaimahaiak honako izendapen proposamena egin du:

Plaza zenbakia	Lanpostua	Jardunaldia	Proposatutako izangaiak
11	Gizarte hezitzailea	%50	Hodei Lizarraga Zufiaurre

Deialdiaren 10.2 oinarria kontuan hartuta, toki erakundearen atariko deialdiaren web fitxan izendapen proposamen osagarria argitaratu eta 10 egun balioduneko epean, izangaiak agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

- Nortasun agiri nazionalaren kopia, edo izangaiaren nazionalitatea eta nortasuna frogatzen dituen beste agiri baliokideren batena.
- Osasun txosten ofiziala, karguaren eginkizunak betetzea eragotziko liokeen akats fisiko nahiz psikiko edo eritasunik ez duela erakusten duena.
- Zinpeko deklarazioa edo deklarazio solemnea, adierazten duena ez dagoela ezgaitua edo gabetua eginkizun publikoetan aritzeko eta ez dela bereizia izan administrazio publikoren baten zerbitzutik (*web orrialdean dago: II. Eranskina – Zinpeko aitorpena*)
- Zin edo promesa, adierazten duena Nafarroako Foru Araubidea errespetatuko duela, Konstituzioari eta legeei men eginen diela eta karguari dagozkion eginkizunak zuzen beteko dituela (*web orrialdean dago: II. Eranskina – Zinpeko aitorpena*)



Aski justifikaturik dauden ezinbesteko kasuetan izan ezik, agiri horiek aurkezten ez dituzten izangaiak eta, orobat, deialdiko 3. oinarrian eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela egiaztatzen ez dutenak ezin izanen dira izendatu edo kontratatu, eta baliorik gabe geldituko dira haien jarduketa guztiak, deusetan galarazi gabe beren eskabideko faltsukeria dela-eta legokiekeen erantzukizuna.

Leitzan, 2024ko ekainaren 13n

Epaimahaiak,

LEHENDAKARIA
Maider Amantegi Urdalleta

BOKALA
Xabier Gartzia Azpirotz

IDAZKARIA
Maider Castilla Elarre